



I. Mercedes Kareaga Beka

2022 (2. deialdia)



MKB

Eibarko herriarentzat interes berezia duten ikerketa historikoko proiektuetarako

Eibarko Udalak, UPV/EHUren laguntzarekin, **Mercedes Kareaga** eibartar ekintzailearen izena duen ikerketa historikoko beka-deia egiten du. Beka honen bidez, Eibarko herriarentzat interes berezia duten eta herriarekin edo eskualdearekin zerikusia duten ikerketa-proiektuak sustatu, ikertu eta zabaldu nahi dira

2022ko bigarren deialdiko ikerketagaia

Mercedes Kareagaren biografia

Bekaren zenbatekoa

9.000 euro

Nola eta non

Elektronikoki, Eibarko Udalaren webgunetik, irailaren 1etik urriaren 31ra

Aurkeztu beharrekoa

Gaiaren azalpena eta lana nola burutuko litzatekeen azaltzen duen proiektua, ahalik eta zehatzena (15 orrialde, gehienez)



Oinarriak

1. Bekaren ezaugarriak
2. Eskatzaileak
3. Eskabideen aurkezpena
4. Dokumentazioa aurkezteko epea
5. Hautaketa-prozesua eta ebazpena
6. Bekadunen betebeharrak
7. Bekaren ordainketa
8. Bateragarritasunak
9. Itzulketak eta zigorrak
10. Ikerketa-lanen jabetza
11. Interpretazioa
12. Datuen babesa

Eibarko Udalak, UPV/EHUren laguntzarekin, Mercedes Kareaga eibartar ekintzailearen izena duen ikerketa historikoko beka-deia egiten du. Beka honen bidez, Eibarko herriarentzat interes berezia duten eta herriarekin edo eskualdearekin zerikusia duten ikerketa-proiektuak sustatu, ikertu eta zabaldu nahi dira. Horretarako, lehen mailako ikerketa-iturrietako bat Eibarko Udal Artxiboa izango da.

Mercedes Kareaga Beka bi urtez behin egingo da eta ikerketa-eremua Eibarko Udala-Euskal Herriko Unibertsitateko Batzorde Mistoak edizio bakoitzean aukeratuko dituen tokiko intereseko historia-gaiei buruzkoa izango da, betiere, generoaren ikuspegitik landuta.

2022ko bigarren deialdi honetan, ikerketa-gaia honako hau izango da: **MERCEDES KAREAGAREN BIOGRAFIA**.

Mercedes Kareagaren biografia

1. Bekaren ezaugarriak

- 1.1** Proiektua, azterlana eta memoria **euskaraz** burutuko dira.
- 1.2** Bekaren iraupena gehienez **20 hilabetekoa** izango da, beka ematen den hurrengo egunetik kontatzen hasita.
- 1.3** Bekaren zenbatekoa **9.000 eurokoa** izango da.
- 1.4** Ikerketa-lanak **originala eta argitaratu gabea** izan behar du.

2. Eskatzaileak

- 2.1** Beka **norbanakoek nahiz horretarako osatutako lantaldeek jaso ahal izango dute**. Bigarren kasu horretan, taldeko ikerlanaren zuzendari arduradun bat izendatu beharko da.
- 2.2** Beka jaso ahal izateko ezinbestekoa da **gradu-ikasketetako edo lizentzia titulua izatea**.
- 2.3** Eskatzaileak bere **euskarako gaitasuna** frogatu beharko du **EGA edo horren baliokidea aurkeztuz (*)**. Lantaldeen kasuan berdin, partaide guztiek frogatu beharko dute aipatutako gaitasuna.

(*) Kontuan izan, 47/2012 DEKRETUA, apirilaren 3koa, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagiriaren bidez egiaztatzen salbuesteko dena; eta 297/2010 DEKRETUA, azaroaren 9koa, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzen dituenak.

3. Eskabideen aurkezpena

Beka eskuratzeko eskaerak **elektronikoki** egingo dira udal webgunetik. Izapidea elektronikoki egiteko ziurtagiri digital bat (B@K-Q, NAN elektronikoa, IZENPE txartela, etab.) edukitzea beharrezkoa da.

Elektronikoki bete behar den formularioari honako dokumentazio hau erantsiko zaio:

3.1 Espediente akademiko zehaztua eta osatua.

Lantaldeen kasuan partaide guztienak.

3.2 Frogagiria, eskatzaileak duen banku-kontuaren titularitatearena; eskaera egin duen pertsonaren identitatearekin bat etorri behar dena. Ondoko dokumentu hauetatik edozein da balioduna: laburpen bankarioa; aurrezki-libreta; banketxeak luzatutako ziurtagiria edo "Titular-kontua" izeneko orria (udal webgunean eskuragarri) behar bezala beteta banketxeak emandako zigiluarekin.

3.3 Eskatzailea zerga-betebeharretan egunean dagoela adierazten duen ziurtagiria, horretan eskumena duen Ogasun Sailak luzatutakoa. Lantaldeen kasuan partaide guztiena.

3.4 Lantaldeen kasuan, aitortpenen eta baimenen dokumentua aurkeztu behar da, partaide bakoitzak behar bezala beteta eta sinatuta (udal web orrian eskuratu ahal izango den ereduaren arabera).

3.5 Eskatzailearen **euskarazko gaitasuna** frogatzen duen dokumentua: **EGA edo baliokidea (*)**. Lantaldeen kasuan berdin, partaide guztiek frogatu beharko dute aipatutako gaitasuna.

(*) Kontuan izan, apirilaren 3ko 47/2012 DEKRETUA, eta 297/2010 DEKRETUA, azaroaren 9koa.

3.6 Eskatzailearen **curriculum vitae**a behar bezala beteta, Udalak eta UPV/EHUK prestatutako ereduaren arabera (eredua Udalaren web orrian eskuragarri), eta curriculum vitaean adierazitako **titulazioen eta merituen egiaztagiriak**. Lantaldeen kasuan, partaide guztienak.

3.7 Gaiaren azalpena eta lana nola burutuko litzatekeen azaltzen duen **proiektua**, ahalik eta zehatzena (**15 orrialdekoa gehienez**), ondokoak azalduz:

- Lanaren ikerketa-esparrua.
- Aurrekariak eta gaiaren gaur egungo egoera.
- Ikertzailearen edo taldearen aurreko esperientzia.

- Helburuak.
- Materialak, baliabideak eta lan-metodologia.
- Lana garatzeko kronograma.
- Aurreikusitako emaitzak eta horien interesa.
- Bestelako finantzabideak, baldin eta baleude.

Oharra: Udalak ofizioz egiaztatuko du eskatzailea eta, lantaldeen kasuan, partaide guztiak Gizarte Segurantzako betebeharretan egunean daudela.

3.8 Legezko ordezkapenaren kasuan, legezko ordezkariaren NANA edo balio bereko dokumentua, eta ordezkariaren egiaztapena, dokumentu bidez. Egiaztapena zuzenbidean bidezkoa den edozein bide erabiliz egin daiteke (notario-ahalordez, eskritura bidez...). Ordezkapena Gipuzkoako Foru Aldundiko legezko ordezkarien erroldan erregistratuta egonez gero, ez da dokumentazio hau aurkeztu beharko.

Prozedura hau tramitatzeke betebeharrak betetzen direla egiaztatzeke, Eibarko Udalak, eskaera egiterako unean zein hurrengo berrikuspenetan, bitarteko telematikoen bidez kontsultatuko du eskatzaileari buruzko informazio hau, eta, taldeen kasuan, haren kideei buruzkoa:

- Udalarekiko ordainketan egunean egotea.
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak ordainduta izatea.
- Legezko ordezkapenen kasuan, ordezkapena Gipuzkoako Foru Aldundiko legezko ordezkarien erroldan erregistratuta egotea.

4. Dokumentazioa aurkezteko epea

Eskabideak eta gainerako agiriak aurkezteko **epea 2022ko irailaren 1etik urriaren 31ra** bitartekoa izango da, egun bi horiek barne.

Eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe dagoela edo oinarri hauetan eskatutako baldintzak ez dituela betetzen ikusiz gero, hamar eguneko epean konpondu edo beharrezko agiriak ekar ditzala eskatuko zaio interesatuari. Hala egingo ez balu eskaeran atzera egin duela ulertuko da, betiere alde aurretik ebazpena emanda, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikulua aurreikusitakoarekin bat.

5. Hautaketa-prozesua eta ebazpena

Beka Eibarko alkateak emango du, Ego Ibarra Batzordeak merezimendu-lehiaketaren emaitza jasotzen duen Epaimahaiaren Akta jaso ostean aurkeztutako proposamena ezagutu ondoren. Beka hutsik geratuko balitz, prozedura berdina erabiliko litzateke.

Erabakia aurkeztu diren eskatzaile guztiei jakinaraziko zaie.

Honako pertsona hauek osatuko dute epaimahaia, era berean, bekaren jarraipena egiteko, **Udala-EHU/UPV Batzorde Misto**a eratuko dutenak.

Batzordeburua: alkatea edo berak eskuordetzen duen Udalbatzako pertsona.

Batzordekideak:

- Ego Ibarra batzordeburua.
- UPV/EHUK izendatutako irakasleak, adituak bekaren deialdi bakoitzak hartuko duen eremuan.
- Eibarko Artxiboaren arduraduna.

Idazkaria: Ego Ibarra Batzordearen idazkaria, bozkarik gabe.

Eskatzaileek aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, epaimahaiak informazio osagarria eska dezake edo/eta hautagai batzuk proiektua defendatzera dei ditzake.

Aukeraketarako irizpideak:

- Eskatzaileen espediente akademikoa eta curriculum (0-10 puntu).
- Ikerketa proiektuaren kalitatea eta balio zientifikoa, originaltasuna eta bideragarritasuna (0-20 puntu).
- Proiektuaren ebaluazioa Eibarko herriarentzat duen interesaren arabera (0-10).

Puntuaketa:

Eskatzailearen puntuazioa, epaimahaikide bakoitzaren puntuak gehitu eta batez bestekoa izango da.

Puntu gehien duenari esleituko zaio beka eta horrek hartuko ez balu, hurrengoari proposatuko zaio.

Berdinketa egonez gero, emakumeei emango zaie lehentasuna, otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20.4.a. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

Aurreko paragrafoan arautu dena alde batera laga gabe, berdinketak jarraitzen badu, ordena zozketaz egingo litzateke.

Epaimahaiak bekarik ez emateko proposamena egin dezake, lanen kalitatea nahikoa ez dela uste badu.

Bekaren onuradunak esleipenaren jakinarazpena jaso eta 10 eguneko epean espreski idatziz uko egiten ez badio, ulertuko da beka eta oinarrietako betebeharrak ontzat ematen dituela.

6. Bekadunen betebeharrak

6.1 LAU HILABETETIK BEHIN TXOSTENA aurkeztea (www.eibar.eus) **DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA** izapidearen bidez **elektronikoki**. Txosten horietan, ordura arte egindako lanaren garapena eta hurrengo lauhilekorako zehaztutako lan-plana jasoko dira.

- Lehenengo txostena aurkezteko epea: 2023ko urtarrilaren 1etik 31ra.
- Bigarren txostena aurkezteko epea: 2023ko apirilaren 1etik 30era
- Hirugarren txostena aurkezteko epea: 2023ko irailaren 1etik 30era.
- Laugarren txostena aurkezteko epea: 2024ko urtarrilaren 1etik 31ra.

Txosten horiek Batzorde Mistoari igorriko zaizkio, txostenak iritsi ahala bilduko baita haien jarraipena egiteko.

6.2 Eibarko Udalaren eta UPV/EHUren esku jartzea egindako lanen ohar, zirriborro, aurrerapenak eta emaitzak.

6.3 Aurreikusitako planaren edo ikertaldearen osaketaren aldaketen berri ematea. Halakorik ezingo da egin Eibarko Udalaren baimenik gabe.

6.4 Bekaren **20 hilabeteak igarotakoan (2024ko irailaren 1a baino lehen, egun hori barne) AZKEN MEMORIA** (ikerlanaren beraren azken erredakzioa) udal webguneko (www.eibar.eus) **DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA** tramitearen bidez **elektronikoki** aurkeztea. Azken memoriaren ezaugarriak:

- Lana tarte bikoitzez mekanografiaturik egon beharko da eta koerlatiboki orrialdeztatua.
- **Azken memoriaren luzerak gutxienez 200 orrialde (100 orri DIN-4an, alde bietatik idatzita) edo 34.000 hizki (Arial 12, lerroarte 1,5)** izango ditu zeinuak, grafikoak, argazkiak eta antzekoak dituzten orrialdeen kasuan izan ezik. Testua ez den elementu

oro orrialdeetan zehar edo tokirik ez balego lanaren bukaeran, eranskin gisa, txertatuko da. Era horretako elementu bakoitzak oin-oharrak izan beharko ditu.

Edozein kasutan, lanak **gutxienez testuko 200 orrialderen (100 orri)** baliokidea izan behar du.

Eranskinetako orrialdeak ez dira kontutan hartuko puntu honetan zehaztutako gutxieneakoak betetzeko.

- Egileak 30 lerro inguruko laburpena eta edukiaren berri ematen duten deskribatzaileak erantsiko ditu euskaraz gain, gazteleraz, frantsesez eta ingelesez.

6.5 Egileak bekarako lana bukatutakoan, jendaurrean aurkeztu beharko du, horretarako Eibarko Udala, UPV/EHU eta lanaren egilearen artean eguna eta ordua adostuta.

6.6 Ikerlanaren garapenaren txostena edo amaierako memoria entregatzeko azken epea betetzen ez bada edo epaimahaiaren iritziz nahikoa kalitaterik ez badu, justifikazio edo gaintitu ezinezko arrazoirik gabe, oinarri hauen 9. puntuan jasotako penalizazioak ezarriko zaizkio irabazleari. Epaimahaiak erabakiko du emandako arrazoiak nahikoak diren ala ez.

7. Bekaren ordainketa

Bekaren ordainketa modu honetan egingo da, izapide administratiboak burutu ondoren:

- Kopuru osoaren % 30a, beka ematen den une berean, aurreordainketa moduan.
- Kopuru osoaren % 20a, beka ematen zaionetik 10 hilabetera, horretarako egindako lanaren eta egingo duenaren azalpen-txostena (6.1. oinarriaren arabera) aurkeztu eta epaimahaiak ontzat eman ondoren.
- Gainontzeko % 50a, bekaren bukaeran, lana aurkeztu eta epaimahaiak ontzat eman ondoren.

Lana amaituko ez balitz, oinarri hauetako 9. puntua (Itzulketak eta zigorrak) ezarriko da.

8. Bateragarritasuna edo bateraezintasuna helburu bererako diren beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin; izan laguntza horiek administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuek, nazio mailako edo nazioarteko erakundeek, zein europako batsasuneko erakundeek emandakoak.

Dirulaguntza hauek bateraezinak izango dira helburu berbererako emandako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, izan laguntza horiek administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuek, nazio mailako edo nazioarteko erakundeek, zein Europako Batasuneko erakundeek emandakoak, dirulaguntza edo laguntza horien araudi erregulatzailerak ezar dezakeena eragotzi gabe.

9. Itzulketak eta zigorrak

9.1 Ikerlanaren garapenaren txostena edo amaierako memoria entregatzeko azken epea bukatu baino lehen eta Udalak aurretiaz errekeritu gabe, bekadunak bere borondatez saria itzultzen badu, sarituak ordura arte jasotako zenbatekoa eta dagozkion berandutze interesak itzuli beharko ditu.

Udalak berandutze-interesak kalkulatuko ditu

Dirulaguntzen Lege Orokorraren 38. artikuluan jasotakoari jarraituta.

9.2 Ikerlanaren garapenaren txostena edo amaierako memoria entregatzeko azken eguna bukatuta Udalak errekeritu ondoren saria itzultzen denean, sarituak ordura arte jasotako zenbatekoa-itzultzeaz eta dagozkion berandutze-interesak ordaintzeaz gain, ezarriko zaion zigorrari aurre egin beharko dio. Zigorra ordura arte jasotako diru-sariaren zenbatekoaren adinakoa izango da.

10. Ikerketa-lanen jabetza

Lanen jabea Eibarko Udala izango da. Udalak beretzat gordetzen du ikerketak osoki edo/eta partzialki erreproduzitu, argitaratu eta plazaratzeko eskubidea (paperezko formatuan, digitalean...), bere kabuz edo beste erakunderen baten hitzarmenez.

11. Interpretazioa

Eibarko Udalak eta UPV/EHUK oinarri hauetan aurreikusi gabeko zalantzak ebatzi ahal izango dituzte. Era berean, beka indarrrik gabe utzi ahal izango dute, onuradunak(ek) betebeharrak hauetako eginbeharrekoak betetzeke lagako balitu(zte).

12. Izaera pertsonaleko datuen babesak

Informazioaren tratamenduak kontuan hartuko ditu Datu Pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoa eta aplikagarri diren gainerako xedapenak.

Datu pertsonalen tratamenduak oroimen historikoa sustatzeko arloari euskarri informatikoa eskaintzea du xede, aintzat hartuta interesatuak emandako baimena eta tratamenduradunari esleitutako ahalordeak, zeinak jasota dauden hurrenez hurren datu pertsonalak eta haien zirkulazio librea dela-eta pertsona fisikoen babesari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Araudiaren 6.1 artikulua a) eta e) letretan.

Tratamenduaren arduraduna: Eibarko Udaleko Ego Ibarra batzordea. Telefonoa: 943- 70 84 21.

Emaila: egoibarra@eibar.eus

Eskubideak: Datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezerezteko, datuak eramateko, datuen aurka egiteko edo datuen tratamenduari mugak jartzeko eskubideak daude; horretarako idazki bat egin behar zaio Eibarko Udaleko tratamenduaren arduradunari, honako helbide honetara: Untzaga plaza 1, 20.600 Eibar (Gipuzkoa). Bidali behar diren datuak hauek dira: izen-abizenak, jakinarazpenetarako helbidea, eskatzen dena, data, interesdunaren sinadura eta fitxategiaren izena.



MKB

I. Mercedes Kareaga Beka

